

# berria

Inprimatzeko bertsioa

Inprimatu 

Leku-lekutan xJOSE MARI PASTOR

## Gauguinen paradisu nuklearra

Papete, Chiracen esker ona. Emaztea eta seme-alabak Europan utzita Paul Gauguin Polinesiara heldu zenerako Tahiti paradisu galduaren irudia hartzen hasia zen Europako artista, bohemio eta inperialisten eraginen ondorioz. 1891. urtea zen, uhartera Samuel Wallis ingelesak deskubritu eta mende bat pasatxo geroago. Gauguin 1903an hil zen eta Atuona herriaren ondoko hilerrian lurperatu zuten. Haren hilobiaren ondoan arroka bat dago, pintorearen izena idatzita duela. Handik gertu, bada beste oroitarri bat: Naopua A Puuafaiu, soldat: Mort pour la France (1914-1918).

Polinesiako uharteek Europako metropolietako jende asko erakarri dute geroztik, eta botere handien gurari arriskutsuen menpe bizi izan dira. Frantziak, esaterako, saio nuklearrak egiteko erabili du Polinesia: Tahititik 1.200 kilometrora dagoen Mururoa inguruan gutxienez 123 bonba nuklear piztu zituen Parisek 1975. eta 1996. urteak bitartean.

Frantziako presidente Jacques Chirac Tahiti izan da aste honetan emaztearekin, bisita ofizialean. Han saio nuklear horien arrazoiak gogorarazi ditu, Les Nouvelles de Tahiti egunkariari eskainitako elkarrizketan. Frantziako presidentek azaldu duenez, ezinbestekoa zen hori egitea Frantziaren lorlari eusteko. «Polinesia gabe, Frantzia ez litzateke izango egungo boterea, zeinak munduko nazioen artean jarrera autonomo, independente eta guztiz errespetatua izan dezakeen», adierazi du.

Chiracek eskerrak eman dizkio Polinesiari Frantziaren alde lan egiteagatik, eta dei subliminala egin die munduko herri guztiei, potentzia militarrek ukatzen dieten errespetua arma nuklearren babesean berengana dezaten.

Munduko nazioen artean errespetatua izateko estatu batek botere nuklearra izan behar duela esan du Chiracek, argi eta garbi, urguilu nuklearra deitu dena azalduta. Hori horrela izanda, guztiz logikoa da munduko gainontzeko estatuak ere arma nuklearrak lortu izan nahi izatea. Munduan «autonomo, independente eta errespetatua den jarrera» izateko bidea arma nuklearrak izatea da antza, modu bakarria estatu guztiak errespetatuak izateko, Chiracek berak iradoki duenez. Errespetu nuklearraren demokratizazio unibertuala izan liteke, beraz, munduko gatazka guztientzako konponbidea.

Paul Gauguinek Tahiti aldean geratzea erabaki zuen, Polinesiako emakumeak eta antzeko maisulanak pintatzen, paradisu artistikoa osatuta. Chirac Parisera itzuli da Tahiti paradisu nuklearra utzita, eta Puuafaiu soldadua, agian berpiztu eta Frantziaren alde berriro hiltzeko prest.

g Kalkilia, arrazakeriaren legea. Israelgo lehen ministro Ariel Sharon AEBetan izan da eta bere legea inposatu du, osterera ere, Washingtonen. Izan ere, aurreko egunetan Palestinako lehen ministro Mahmoud Abbas izan zen bertan eta orduan gobernu israeldarra Zisjordanian eraikitzen ari den banaketa hesia kritikatu zuen AEBetako lehendakari George Bushen, bake prozesuari lagunduko ez diolako. Hala ere, Sharonekin elkartu eta gero, Bushen diskurtsoan aldaketak izan ziren, azalean eta muinean. Hesia «hesi soil bat» bihurtu zen Washingtingo agintariaren hitzetan, «garrantzirik gabekoa», gainera.

Bi egun geroago, ostegun gauean, Israelgo Legebiltzarrak palestinarren kontrako neurri arrazistak onartu zituen: israeldar eta palestinarren arteko bikoteek banaturik bizi beharko dute edo Israeldik alde egin. Hemendik aurrera Israelgo herritarrekin ezkonduko diren Zisjordaniko eta Gazako gizon eta emakume palestinarrei ez zaie herritartasun israeldarra emango, eta ezin izango dute Israelen bizi. Erabakia soilik palestinarren kontra hartu da, «segurtasun arrazoiengatik». Munduko beste edozein lagunek herritartasun israeldarra lor dezake ezkontzaren bidez. Amnesty Internationalek «arrazista eta diskriminatzailetzat» jo du erabakia, baina legea onetsia du Knesset-ek, eta inork ez du Israel atzera egitera behartuko.

Palestinarren eskubideak errespetatzearen alde dago Chirac? Nola bermatu errespetu hori? Palestinarrek, inoiz estatu independentea lortuz gero, aukera izango lukete arma nuklearrak izateko? Halakorik proposatuko luke Jacques Chiracek herritar palestinarren jarrera «munduko nazioen artean autonomia, independentea eta errespetatua izateko», Frantziarena bezala?

Eta Paul Gauguinek Palestinako emakumeak pintatuko lituzke egun, Kalkiliako paradisu?

© Berria.info

# berria

Inprimatzeko bertsioa

Inprimatu 

Leku-lekutan xJOSE MARI PASTOR

## Chiakiren ametsa

Hiroshima, gerraren oroitzapena. 1995ean Washingtongo Smithsonian institutuak Hiroshimako sarraski nuklearrari buruz antolatu nahi zuen erakusketa bat bertan beheara utzi zuen fianbrera batek. Fianbrera hori besopean zeraman hamabi urteko ume batek bonbardaketa gertatu zenean. Umea hil egin zen eta ontziko arroz eta frijoleak hantxe geratu ziren, erre-erre eginda, tragediaren lekuko. Erakusketa osatzeko AEBek Japoniari materialea eskatu ziotenean, fianbrera bidali zuten Washingtonera Hiroshimatik. AEBetako gerra beteranok protesta egin zuten Japoniari biktimismoa eta manipulazioa egotzita, eta erakusketa ez zen, azkenean, egin.

Gertakaria Tzvetan Todorov Parisko Ikerketa Zientifikoko Zentro Nazionaleko ikerketa zuzendariak gogorarazi du egunotan, Trumanek, Japoniako inbasioak bere armadan eragingo zituen biktimen beldur, bomba atomikoa jaurti zueneko 58. urteurrenean. Todorovek hauxe esan du: «Gerra zuzenek ere tragediak eragiten dituzte, eta tragedia horiek ezin dira bazter utzi etsaiak jasan zituela argudiatuta».

Hiroshimako biktimen omenezko ekitaldian arma nuklearrak jainko berrizat jotzea leporatu die bertako alkateak AEBei. Izan ere, arma nuklearrak hor dira beti. Esate baterako, Iraken estatubatuarrek aurkitu ez dituzten armak eta, agian, noizbait aurkeztuko dizkigutenak baino arma askoz ere arriskutsuagoak aurkituko dituzte NBEko ikuskatzaileek AEBetan. Pentagonoak berak onartu du orain Bagdaderako bidean napalm bonbak jaurti zituztela. Vietnamen legez.

II. Mundu Gerran (1939-1945) aliatuen borrokaren balio morala nazi edo japoniarrena baino askoz ere handiagoa zen: zoro batek mundu guztia bere menpe jarri nahi zuen arraza baten nagusitasunaren ameskerian oinarrituta. Zein da, baina, hasiera eta bukaera datarik ez duen III. Mundu Gerra honetako aliatuen kausaren balio morala?

«Neure buruari galdetzen diot: nork erabakitzen du gerra hastea? Gerrak senide eta lagun maitagarriak eramaten ditu, eta gauza garrantzitsu asko galtzen dira». (Mai Saruwatari, Daigoko eskolako 5. ikasturteko ikaslea, Hiroshimari buruz).

g

Camberra, mendekuaren odola. Jakartako Marriott hotelaren kontra egindako atentatua ia bat etorri da iaz Balin egindako atentatuaz akusatutako islamistaren kontrako zigorrarekin. Terrorista irribarretsuari heriotza zigorra ezarri diote, eta Australiako lehen ministro John Howard 200dik gora biktimen erdiak australiarrak izan ziren «poz-pozik» azaldu da.

Kondenatuak berak zigorra jasotzean pozkariora erakutsi arren, Camberrako gobernuburuak hala jokatzeari ez da egokiena. Ulegarria da hilketetako biktimen senideak samina odol gehiagorekin ito nahi izatea, baina Howardek, agintaria denez, emozioak hobeto kontrolatzen jakin beharko zukeen, biktimen artean seniderik izan balitu ere. Batez ere, Baliko atentatu horretan hil zirenen beste senar, emazte eta seme-alaba australiar batzuek euren burua heriotza zigorraren kontratztat jo eta kondena gaitzetsi dutenean. Eta, batez ere, hark berak Balin emazte edo seme-alabarik galdu ez zuenean.

Australiak ez du indarrean heriotza zigorra, baina John Howardek heriotza zigorra aldarrikatu du bere mendeku adierazpenekin. Australiako herritarrek hiltzen dituen musulman bat hilko luke gustura asko lehen ministroak. Hala ere, berdin egingo zuen Australiako aborigeneak hil zituzten bere arbasoekin? Ez, seguruen. John Howardek «herrialde beltz batera joandako sheriff zuri baten antzera» jokatzan baitu, Malaysiako lehen ministro Mahathir Mohamadek behin adierazi zuenez.

«Zer da garrantzitsuagoa: garaipena ala bizitza? Munduko egoerari erreparatuta, ezein estatuk ez du lortu «benetako» bakerik. Eta benetako bakea da guk guztiok nahi duguna». (Kanao Manabe, Kanaokako eskolako 6. ikasturteko ikaslea).

g Monrovia, iraganaren esklabotza. 1931n amerikar-liberiarrek Estatu Batuetatik aske Afrikara itzultitako beltzen ondorengoak bertakoak esklabotzan erabiltzen zituztela baieztatu zuen Nazioen Ligak. Eskandalua izugarria izan zen eta Liberiako presidentek eta presidenteordeak dimititu egin zuten. Batek baino gehiagok maltzurki pentsatuko zuen esklaboek askatasuna nahi zutela arbasoen jatorriko herriara joan eta bertakoei ere esklabotzaren esperientzia biziarazteko.

Egoera ez zen guztiz baretu gero: II. Mundu Gerraren ondoren Tubman, Tolbert eta Doeren agintaldi gorabeheratsuak izan ziren eta, azkenik, Charles Taylorrek 1989an hasitako matxinada. Egun Liberia munduko herririk pobreenetakoa da. Hango

herritarrek «bakea nahi dugu, gerra gehiagorik ez» oihuka hartu dituzte Nigeriatik joandako lehen nazioarteko tropak. Taylorrek alde egingo duela agindu du. Hitza beteko balu, etzi ez litzateke boterean egongo. Joango ote da? Nazioarteko presioa hor dago, baina lehenago ere horixe esan du Taylorrek, eta hitza jan du. Berak alde eginda ere, bake iraunkorra, benetako bakea, ez da erraz lortuko Monrovia. Iraganean sastaden esklaboa izan da Liberia, eta etorkizunean zaurien morroia izan daiteke. Denborak odol gehiegi isuri baitu herraren larrean.

«Agian, bakea ametsa besterik ez da. Ametsa izanda ere, nik ez dut inoiz amorerik emango: ez dut inoiz galduko bakearen desioa» (Chiaki Masuo, Kanaokako eskolako 6. ikasturtekoa).

© Berria.info

# berria

Imprimatzeko bertsioa

Inprimatu 

Leku-lekutan xJOSE MARI PASTOR

## «Eta gaua joango da...»

Nabulus, tregoa su-etenean. Israeldarren eta palestinarren arteko su-etena ezin dela inondik inora ere erabatekoa izan, idatzi du Sandro Violak La Repubblica-n. Bi aldeen gorrotoak handi-handiak dira, eta armak hor dira beti. Nola ahaztu, bada, urteetako mina eta ezinikusia hilabete eskasean?

Asteartean egindako atentatu suizidek erakunde palestinarrek su-etena hautsiko ote zuten susmoa piztu zuten Israel eta Mendebaldeko hedabideetan. Nabulus inguruko bi gazteek leherrazitako bonbek azken asteotan israeldarrek ez palestinarrek izandako giro lasaia zartatu zuten. Hamas eta Jihad Islamikoak su-etinari eusten ziotela esan zuten, hala ere. Atentatuak Israelgo tropek Zisjordanian eta Gazan eginiko eraso eta hilketei eman beharreko erantzun taktikoa ziren, haien esanetan. «Israeldarrek ez dute su-etena errespetatu eta herri palestinarri erasotzen segitu dute tregoa lehen egunetik», adierazi zuen Jihad Islamikoko bozeramaile Mohamed al Hindik.

Su-etinari eutsi, bi eraso suizida eginda? Askok ez zuten ulertu. Sharonek, bai, ordea. Israelek utzi egin zion preso sozialak eta soslaia politiko deskafeinatuko gatibuak askatzeari. Sharonek ez zuen, baina, bonbardaketak bezalako zigor latzik agindu. Bi ekintzaile palestinarren senideen etxeak suntsitu zituen, bai, baina hori, nazioarteko legediaren kontrakoa izan arren, ohikoa du Tel Avivek, lehen Intifada-n soldadu eta polizia harrira zebiltzan ume palestinarrei eskuak haustea bezala.

Kontua da alde bakarreko su-etena indarrean dagoela oraindik, baina ez dirudi luze irauteko aukera asko duenik. Eta alde bakarreko eraso oldeak isilean segitzen du etengabe: Tsahal erasotzen ari da Zisjordanian, eta Sharonek bere harresia eraikitzen segitzen du erreparorik gabe. B'Tselem giza eskubideen aldeko erakunde israeldarrek salatu duenez, harresiak 200.000 palestinarri eragingo die haien nekazaritza jardueran, Zisjordaniako beste hiri eta herri batzuekin egin beharreko komunikazioan, eskolara edo ospitaleetara joateko garaian... Kalkuluen arabera, harresiak etorkizuneko estatu palestinarrek izan beharko lituzkeen lurren %10 hartuko ditu. Kokagune juduek dagoeneko ia %30 berenganatu dituzte. Zer geratuko da palestinarren esku?

g

Santiago, poesia umezurtz. Poesiari eskuak hautsi zizkieten egunean esperantzaren bihotza umezurtz geratu zen Txilen. Salvador Allende presidente hautatua boteretik kendu eta hil zuen estatu kolpearen 30. urteurrenaren bezperan Ricardo Lagos presidentek iraganaren zauriak ixteko plana aurkeztu du. Horren arabera, diktadurako biktimek konpentsazio ekonomikoak izango dituzte, eta torturatzaileek konpentsazio moralak. Bai, moralak, azken batean haien aurkako kartzela zigorrak biziki samurtuko direlako agintaldi militarrean egindako sarraskien datuak ematen baldin badituzte.

Lagosen erabakiak giza eskubideen aldeko erakundeen protestak eragin ditu. Protesta horiek inoiz baino justifikatuago daude, Augusto Pinochet diktadore ohiak berak ahoa ireki baitu aste honetan. Non dago arazo psikiko eta fisikoek jota omen zegoen agurea? Pinochet harro mintzatu da, giza eskubideen kontrako krimenengatik auzipetuak diren militarrei elkartasuna erakutsi eta kolpearen urteurrenean Armadari batasuna eskatzeko.

1973ko irailaren 11n AEBek Allenderen kontra bultzatutako estatu kolpea ulertu egiten dute, ez gutxi, oraindik ere Txilen. Ez, bereziki, eskuineko askok eta ezkerreko beste batzuek Unidad Popularreko presidenteari egozten zizkieten dandy janzkera edo ustezko bon vivant izaeragatik, bideratzen saiatu zen politika sozialagatik baizik.

Txileko ume bakoitzari egunean baso bat esne agindu zionak herrialdeko ondasunak nazionalizatu nahi izan zituen ITT, Anaconda, Kennecot eta AEBetako beste konpainia handien interesen kalterako. Eta Washingtonek, noski, ez zion barkatu. «Ez dakit zergatik onartu behar dugun herrialde bat marxista izatea, soilik bere herritarrak arduragabeak direlako», esan zuen Henry Kissinger AEBetako Estatu departamenduko buruak Txileri buruz orduan. 30 urte pasatu dira geroztik, eta esperantzaren bihotzak ez du oraindik poetarik aurkitu, baina Victor Jararen usoak libre segitzen du hegan, «eguzkia itzuliko da, itzuliko da; eta gaua joango da, joango da; bil zaitez nire laztantasunean...».

g Diyarbakir, eguzkia gatibu. 30ko urteen hamarkadan atxilotu zutenean Leila Zanari ez zizkieten eskuak hautsi, baina poliziek eta soldaduek torturatu egin zuten. Hurrengo urteetan hilketa saioak egin zituzten Leilaren aurka, eta haren aurpegia diana moduan erabiltzen hasi zen Turkiako Polizia tiro praktiketan.

1991n Turkiako Legebiltzarreko diputatu aukeratu zuten Diyarbakirren, Turkiaren menpeko Kurdistango hiriburuan, eta emakume kurduen errebolaren sinbolo bihurtu zen. Baina Ankarak sinbolo hori suntsitu nahi izan zuen, kurduen aldarrikapenei muzin egin eta zapalkuntza areagotzeko politikari eutsiz. Leila Zana arriskutsua zen, nonbait, Turkia kemalistarentzat: 1994an immunitate parlamentarioa kendu zion Ankarak, eta 15 urteko kartzela zigorra ezarri zien berari eta DEP Alderdi Demokratikoa talde politikoko beste hiru diputaturi.

2001ko uztailean Europako Giza Eskubideen Auzitegiak prozesua gaitzetsi zuen, eta Ankarari beste epaiketa bat egiteko eskatu. Auzia 2003ko otsailean hasi zen berriz, baina ez da ezer aurreratu. Ostiralean DEPeke diputatuak epaitegira eraman zituzten kartzelatik, haien aurkako fartsak segi zezan. Ordubete eskasean bigarren mailako bi lekukoren deklarazioak entzun eta gero, prozesua atzeratu egin zen. Zazpigarren aldiz sei hilabetean.

Bitartean, Leilak eta herri kurduak kartzelan segitzen dute. Zeru idor ilunak ezin du ase eguzki gatibuaren egarria, eta tiranoaren soldadu bihurtu du ilargia. Gaua ez da oraindik joan Diyarbakirretik.

© Berria.info

# berria

Inprimatzeko bertsioa

Inprimatu 

LEKU-LEKUTAN XJOSE MARI PASTOR

## Dalai Lama, Bagdadeko sarraskien alde

Lhasa, 'terrorismo' onaren alde. Dalai Lama George Bushen nazioarteko politikaren alde? Bakearen mezularia Irakeko bonbardaketen alde? Horixe iradoki du Tibeteko buruzagi espiritual erbesteratuak New Yorkera iritsi berritan eginiko adierazpenetan.

Batek baino gehiagok nekez sinetsiko du tibetarrek Txinaren okupazioaren kontra daramaten borrokaren sinbolo baketsua Bushen politikaren alde azaltzea. The Age Australiako egunkariak, hala ere, ez du zalantzarik izan albistean: Buddha's man of peace: Violence needed to fight terror (Budaren bake gizona: indarkeria behar da terrorismoa borrokatzeko). Horrekin komiki bat dago: Lama terrorismoaz hausnartzen. Dalai Lama eserita ageri da bertan, hortz artetik leherketa baten soinua ateratzen zaiola: «Bommmmb....».

Dalai Lamaren hitzek, argi-argiak ez badira ere, Bushentzako sostengua adierazten dute: «Terrorismoa da indarkeria okerrrena; beraz, geldiarazi egin behar dugu, haren kontrako neurriak hartu». Irakeko gerra huts egitea izan denetz ez daki: «Soilik historiak esango digu hori». Nazioartekoan Irakeko gerra terrorismoa areagotzen ari dela dioten honetan, erasoaldiak nazioarteko legedia urratu eta adostasuna hautsi duen honetan, Dalai Lamak ez du iritzirik eman nahi izan.

Dalai Lamak badauka duda egiteko eta iritzia aldatzeko eskubidea, edonork bezala. Beste kontu bat da jokaera hori hura bakearen uso jantzi eta Ongiaren eta Gaizkiaren gainean jartzen diguten new age konbertso apolitikoei zer irudituko zaien.

Kontraesanak humanoak dira. Neurritz, noski. Inor ez da perfektua, ume handien pentsamoldeak pertsonaia eredu garri buruz ematen digun soslaiak hori irudikatzen badigu ere. Gandhi ere indarkeriaren aurkako apostolua zen, baina gizarte justiziaz edo emakumearen eskubideez zituen ikuspuntuak, esaterako, ez ziren aurreratuenak; Che Guevara borrokaren sinbolo internazionalista dugu, elkartasun beroa, baina haren izaera zorrotz eta hotza oztopoa izan zen maiteena zuen jendearengana gehiago hurbiltzeko Chek, behintzak, onartu egin zuen hori bere idazkietan; eta Dalai Lama bakezaleak justifikatu egiten ditu Bagdadeko azoketako sarraskiak...

Jainkoak atsedean hartu omen zuen zazpigarren egunean. Geroago igandea deituko zioten egun hartan ere lan egin balu mundu perfektu ez baina hobea utziko zigun. Jainkoak atsedeenaren aitzakiaz mundua taxuz txukundu gabe uzteko eskubidea izan bazuen, zergatik ez du izango Dalai Lamak Irak eta Afganistan bonbardatzearen alde egoteko eskubidea?

Baina bakearen apostoluak terroristen aurkako terroristen alde badaude, zeren alde ez dira egongo gerraren defendatzaileak?

g

ERROMA, 'IL CAVALIERE' SINAGOGAN. ITALIAKO LEHEN MINISTRO SILVIO BERLUSCONIK AHOKADAK BOTATZEN SEGITZEN DU. ASTEAZKENEAN ITALIAKO KOMUNITATE JUDUKO BURU AMOS LUZZATTOREKIN ELKARTU ZEN, AURREKO ASTEAN BENITO MUSSOLINIRI BURUZ EGINIKO ADIERAZPENEN ONDORIOAK ZUZENTZEKO. IZAN ERE, VOCE DI RIMINI EGUNKARIARI ESKAINITAKO ELKARRIZKETAN ITALIAKO DIKTADORE FAXISTA OHIA ETA SADDAM HUSSEIN GONBARATZEN ARI ZENEAN, HAUXE ESAN ZUEN: «MUSSOLINIK INOIZ EZ ZUEN INOR HIL. JENDEA OPORRETAN EDO BARNE EXILIORA BIDALTZEN ZUEN».

Askok gaitzetsi zituzten esanak. Haietako bat Luzzato izan zen. Berlusconiarekin izan ostean, auzia konponduta ez dagoela esan zuen: «Barkamena ez die soilik juduei eskatu behar, italiar guztiei baizik».

Mussolinik juduen aurkako legeak jarri zituen indarrean 1938an, eta horien ondorioz 7.000 judu inguru deportatu zituzten. Haietako 6.000 bat hil ziren, Il Duce-k emaniko oporraldi haietan. Baina Mussoliniren diktadurak herrialde osoari eragin zion. Arraza jazarpena kontu nazkagarrienetakoa izan zen, baina ez bakarra: askatasun indibidual eta kolektiboak bertan behera utzi zituen, oposizioa txikitu zuen, antolaketa demokratikoa suntsitu zuen, Italiak Hitlerrekin bat egin zuen...

Baina hori guztia txantxetako da Berlusconiarentzat.

GMOSUL, DEFENTSARIK GABEKO MINISTROA. SADDAM HUSSEINEN GOBERNUKO AZKEN DEFENTSA MINISTROAK ESTATUBATUARREN

ESKU UTZI ZUEN BERE BURUA OSTIRALEAN, MOSULEN. ENTREGATZEKO BALDINTZAK JARRI ZITUEN MINISTROAK ETA AEBEK ONARTU. HASHIM AHMEDEN BALDINTZETAKO BI HAU EXEK IZAN ZIREN: BERE IZENA SHERIFF-AREN AFIXETATIK KENTZEA ETA GERRA KRIMENAK EZ EGOZTEA.

Hedabideetan gizon moderatutzat jo dute Hashim Ahmed. Hura barkatzea justifikatzeko ote? Baliteke. Saddam Hussein kriminal deabruaren Defentsa ministroa izan da Hashim Ahmed, Armadako jenerala. 1991n Golkoko Gerran errendizioa sinatu zuen Norman Schwarzkopf jeneral estatubatuarrekin. Hainbeste urtetan Armadako goi karguetan eta Defentsa ministerioan izanak ez zuen zer ikusirik izan kurdu eta xiiten kontrako sarrasketan? Eta suntsipen handiko armen auzian? Irakeko gobernuko zenbait buru ohi atxilotu eta gero, arma horiek badiren oraindik ere ez jakitea harritzekoa da. Orain, baina, Defentsa ministro ohiak lehenbailehen argi lezake hori. Arma horien berri hark ez bazekien, bada?


Hashim Ahmed moderatutzat jotzeak, ia errugabetzeak bera Hussein traizionatu zuena izan ote zen susmoa handitu du.

Defentsa ministroa errugabea bada, nor da erruduna? Agian, inor ez. Agian, dena Berlusconiren komedia bateko gaia da. Agian, Husseinek ere oporretan bidaltzen zituen kurduak eta xiitak. Bush irakiarrek eta afganiarrak oporretan bidaltzen ari den bezala. Dalai Lama ororen gainetik bakezale santuaren baimenarekin.

© Berria.info

# berria\*

Inprimatzeko bertsioa



Leku-lekutanxJOSE MARI PASTOR

## Argirik ez Potosin

La Paz g Gerraren garra. Boliviako suak sutan dirau. Itzaliko ote da? Hainbat komunitate eta kolektibotatik bultzatutako protestek helburua lortu dute: euren ondasunak ez saltzea lehenago erreferendumean onartu beharko dute eta Gonzalo Sanchez de Lozadak dimititzea. Presidentea AEBetan dago jadanik, baina gasa ez. Oraingo.

Gasaren gerra deitu dutena ez da berez hori, pobreziaren gerra baizik, baztertuen garrasia. Pobrezia latza baita boliviarrak bizi dutena: Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, 8.300.000 herritar ditu Boliviak, haien erdiak 18 urtez beherakoak. Herritarren %59 pobreziaren putzuan itota daude eta %20ek ondasun nazionalen %54 berenganatzen dituzte; lau ume edo gaztetatik bat desnutrizio kronikoak jota dago. «Duintasunagatik altxatu gara. Pobrezia eta gosea eraman daitezke, azken batean betidanik eramaten ari gara; baina ezin dugu jasan geure herrialdea saltzea, geu hiltzea eta geure etorkizuna kentzea», adierazi du aste honetan Interneten bidezko solasean Juan Chuyma boliviarrak.

Duintasun horregatik hasitako protestak handitu egin dira egunez egun. Jadanik berrogei-hiruoroi hildako eragin dituzte, ez dago zehazterik: Bolivian gorpuek ez baitute izenik; herritarrek Gonzalez, Quiroga, Palacios, Mujia y unos cuantos indios izendatzen dituztelako oraindik; zortzi milioi biztanle izan arren, 778.000 herritar ez daudelako legez erregistratuta, inolako agirik gabe daude haien nortasuna adierazteko, izenik gabe. Haietako %62 umeak dira, UNICEFen datuen arabera.

Pertsona horiek ez dira inor, ez daude inon. Ez dira existitu ere egiten, antza denez. Itzalita daude estatistika ofizialen datu argietan. Itzalik gabeko itzalak dira La Paz, Cochabamba, El Alto, Potosi, Sucre eta beste hiri eta herrietako bazterretan; esperantza umezurtzak pobreziaren gerran, egunsentiarekin esnatzen den gerra isilean. «Goizero gerra lotatik esnatzen da / Orduan nik poema batean jartzen dut hori, eta poema ontzi batean / Sartzen dut, zeina Tigrisera botatzen dudana / Hau gerra da, beraz», idatzi du Fadhil al-Azzauik. Potosiko poeta kitxua batek ere antzekoa idatz lezake egun Boliviari buruz.

New York g Gerraren gurra. AEBek ebazpen berria lortu dute Nazio Batuen Erakundearen Iraken egindako okupazioa legeztatu nahian. Erresoluzioak, hala ere, ia lehen bezala utzi du auzia. Estatu Batuek botere militarri eutsiko diote Iraken, baina orain NBERen sostenguarekin; estatu batuek botere politikoari ere eutsiko diote, ebazpen berrian ez baita subiranotasuna irakiarrei bueltatzeko eperik zehaztu.

Washingtonen NBERen lortutako garaipena txikia da, funtsean huts egin baitu. Izan ere, Bushen NBERen eunitatearekin babestuta joan nahi zuen Espainiara datorren astean, Madrilen egingo den diru-emaileen bileran bere abenturarentzako sostengu ekonomiko handia lortzeko. Alta, Errusiak, Frantziak eta Alemaniak esan dute Iraken berreraikuntzarako «oraingo» ez dutela ez dirurik, ez soldadurik eskainiko. AEBek haien itxurazko sostengu morala dute, baina ez haien laguntza ekonomiko edo militar zuzena. Oraingo.

Hori horrela bada, zergatik bozkatu dute hiru estatuek ABERen erresoluzioaren alde? «Zergatik ez ezezkoa eman edo abstenitu? Zintzoagoa izango zen», idatzi du Sueddeutsche Zeitung egunkari alemaniarrek. Kontua da Mosku, Paris eta Berlinek baiezkoa bozkatzuz orain arteko okupazioari beste babes legal bat eman nahi izan diotela, errealtate gordina onartuta.

Bitartean, gerra osteko gerrak segitzen du Iraken. Eta sufrimenduak. «Eguzkiak denak argitzen ditu / Denak ni izan ezik / Inor ez dago zorionaren faltan / Niretzat mina baino ez dago», idatzi zuen Juan Wallparrimachik duela bi mende. Kirkukeko poeta kurdu batek ere antzekoa idatz lezake egun Iraki buruz.

© Berria.info



# berria

Inprimatzeko bertsioa



LEKU-LEKUTAN X JOSE MARI PASTOR

## Alexandro Handiaren ondorengo handikeriak

NEA MICHANIONA

ARRAZAREN ARRAZAKERIA. Espainiako bandera eramango al du inoiz ume magrebtar batek eskolan, Hispanitatearen edo garai bateko Arrazaren Eguneko festan? Eta Saudi Arabiakoa ume judu batek? Arrazakeriaren hazia gure baitan noraino erroturik dagoen agertu zaigu asteen Europan, non eta Grezian, askoren ustez ustea erdi ustel fenomeno hori garaturik ez zegoen herrialdean. Baina arrazakeriak ez du mugarik, eta Egeo aldean ere azaldu da oraingoan.

Nea Michaniona kostaldeko herrian gertatu da, Salonikatik hurbil. Biktima 17 urteko gaztea izan da, etorkinen semea. Auzia Greziako Gerra Zibilaren ondoren sentimendu nazionalistak sortutako legeak eragin du. Lege horren arabera, festa nazionaletan ikastetxeetan egiten diren desfile eta agerraldietan ikasle onenak eraman behar du Greziako bandera. Kontua da asteartean, urriaren 28an, festa nazionala izan zela Grezian, eta Nea Michanionako eskolan Odysseas Tschenai gaztea izan zela bandera eramateko aukeratua. Odysseas, izena greziarra izan arren, albaniar jatorrikoa da eta, gainera, musulmana. Eskolakide eta gurasoen erreakzioek hankaz gora jarri dute herrixka: barrikadak, suak, etorkinen kontrako erasoak... Eztabaida herrialde osoan hedatu da. Ume albaniar musulman bat Greziako bandera eramaten? Salonikako gobernadore eta Nea Dimokratia alderdi kontserbadoreko politikari Panajiotis Psomiadisek gehiago piztu du herrären garra: «Inor ezin da greziar bihurtu. Greziar jaio egiten da, eta kitto», esan du. 20. mendearen hasieran kultura eta herri askotako lekua zen Salonika: hiria greziar, turkiar, judu, eslaviar eta herri askotako iheslarien bilgunea zen. Egun, baina, egoera aldatu egin da. Grezia, orain hamarkada batzuk etorkinak sortzen zituen herria, etorkin berrien herria da egun. Herritarren %10 inguru atzerritarrak dira, erdiak baino gehiago albaniarak. Greziar horien arrazakeria ez da atzo goizekoa, askok horixe iradoki nahi duten arren. Antzinako loria kulturaletik datorkie. Alexandro Handia zenak hauxe esan zuen: «Niretzat atzerritar on bakoitza greziarra da; eta greziar txar bakoitza, atzerritarra». Alegia, ongia etxean beti, gaizkia kanpoan. Atzerritarrekin, azken batean, antzera gertatzen da Grezian eta munduko beste herrietan, baita gurean ere: bat bera ere ez dagoenean, errespetua; batzuk daudenean tolerantzia, eta asko daudenean gorrotoa. Grezian albaniar musulman batek bandera eramatea ez dute onartzen, baina horrek ez gintuzke harritu behar. Azken batean, eta urrunera joan barik: besterik gabe onartuko genuke ume ijito errumaniar batek ikurrina eramatea Aberri Eguneko desfilean?

BAGDAD

ERRESISTENTZIAREN ERRESISTENTZIA, IBRAHIM AL BASRIK, SADDAM HUSSEINEN MEDIKU OHIAK, AEBETAKO SOLDADUAK JO DITU IRAKEKO KAOS ETA ERASO GUZTIEN ERANTZULETZAT WELT AM SONNTAG EGUNKARI ALEMANIARREAN, GERRA AMAITU ZENEKO SEI HILABETE PASA DIRELA-ETA GAUR ARGITARATUKO DEN ELKARRIZKETAN.

Asteheneroko atentatuek Irakeko egoera anarkikoa azaldu digute berriz: itxurazko bakeak benetako gerra ezkututzen du, gerra ezohikoa baina, non AEBek zehaztutako gerra ofizialean baino soldadu estatubatuar gehiago hil diren. Ramadanaren hasierarekin batera izandako leherketa sinkronizatuek ilundu egin dute Madrilen egindako diru-emaielen bilerari eman nahi izan dioten dirdira. Atzoko deitu zuten erresistentzia eguna ere ildo horretan garatu da: okupazioaren kontrako borrokan. Sei hilabete gerra amaitu zenetik, eta gerra hasi baino ez da egin, antza: erasoak gero eta gehiago dira, gero eta sofistikatu eta koordinatuagoak. Sei hilabeteotan zer izan den ikusita, urtebete pasatuta egoera nolakoa izango den asmatzen ez da zaila.

# berria

Inprimatzeko bertsioa



LEKU-LEKUTANXJOSE MARI PASTOR

## Il imputato B.

ERROMA g

**ZALDUN DEMOKRAZIA.** 1985ean Carlo de Benedetti Sme elikagai enpresa publikoa erosten saiatu zen. Beste enpresaburu bat haren asmoa zapuzten lanean hasi zen, eta horretarako estatu enpresaren etorkizuna erabakitzen ari ziren epaileetako bi erosi zituen, De Benedettiren arabera. Bigarren enpresaburu hori Italiako lehen ministroa da egun.

Silvio Berlusconi duela hemeretzi urte hasitako prozesuari lotuta segitzen du. Ezin izan du handik alde egin. Asmo horrekin 2003ko ekainaren 18an Schifani legea onarrarazi zuen, korrika eta presaka, bere immunitatea bermatzeko, baina fartsak zazpi hilabete baino ez du iraun: asteazkenetik Silvio Berlusconi il imputato B. da berriro ere, teoriarik beste edozein herritarren eskubide eta betebeharrekin. Auzitegi Konstituzionalak indarrrik gabe utzi du legea. Berlusconi ekainean indarrean jarritako legeak immunitatea ematen zien Italiako estatuko bost kargu politiko garrantzitsuenen: Errepublikako presidentea, Kongresuko eta Senatuko presidentea, Kontseiluko presidentea lehen ministroa, hau da, Berlusconi eta Auzitegi Konstituzionaleko presidentea. Legea Italiak Europako Batasuneko txandakako lehendakaritza bere gain hartu baino lehenago bideratu zuten Erroman. Helburua jakina zen: **Berlusconi** Hamabosten buru eta kanpo irudia zen bitartean auzipetuta **egoteak** kalte handia egiten zien Italiari eta EBri **berari**. Italiako Auzitegi Konstituzionalaren erabakia Erromak EBko lehendakaritza Irlandaren esku utzi eta bi astera heldu da, aurreko sei hilabeteotan une egoki horren zain egon balitz bezala. Epailen iritziz, Schifani legeak Italiako Konstituzioko bi artikuluru urratzen ditu: hirugarrena «herritar guztiak berdinak dira legearen aurrean» eta 24. artikulua, legezko defentsaren eskubideaz mintzo dena.

Il Cavaliere-ren fartsa bukatu da. Oraingoz, Berlusconi zaldun demokrazia ezarri nahi zuen, non boterearen aristokraziako agintari goren-gorenak euren ekintzen erantzukizunetik kanpo egongo ziren eguneroko bizitzan, baina ahalegina alferrikakoa izan da.

TEHERAN g

**JAINKO DEMOKRAZIA.** Irango kontserbadore eta erreformisten arteko tirabirek gori-gori segitu dute aste honetan. Otsailean bertan egingo diren hauteskundeak begira, ehunka hautagai zerranda bertan behera utzi ditu Zaindarien Kontseiluak, eta diputatu erreformistek protesta jezarraldia egin dute Legebiltzarrean bertan.

Erronka ez da nolana hikoia. Ganberan egun dauden 290 diputatuetatik 200 bat erreformistatza jo daitezke. Kontserbadoreen erabakia kolpe latza izan liteke eta giro arriskutsuan sar lezake Iran hauteskundeetatik hilabetera. Arriskuak ohartuta protestaldia bertan behera uzteko eskatu die Mohammad Khatami presidentea protestan ari diren hautatuei. Era berean, Zaindarien Kontseiluaren erabakia gogor kritikatu du. Neurri horiek «erlijio demokraziaren oinarriak» jotzen dituzte bete-betean, Khatamiren arabera. Ez dago ukatzerik Zaindarien Kontseiluak hartutako erabakia baztertzailea denik, ezta Irango egoera politikoa astin dezakeenik ere. Erlijiotik sortutako demokraziaren aipamena, aldiz, eztabaidagarria da. Irango gizartean buru erlijioso eta agintari politikoen arteko bereizketa nabarmenik ez egotea ez da kritika kontu bakarra; azken batean, Europako Mendebaldean ere Eliza eta Estatuaren arteko bereizketa ez baita beti % 100ekoa. Eta hemen ere erlijio demokraziak barik zaldun demokraziak edo erret demokraziak ditugulako, gero eta gehiago, herritarren arteko berdintasuna urratzen dutenak.

Erlijio demokrazia aipatzen denean, baina, irrazionala eta arrazionala batzen zaizkigu, gizakien arteko antolaketa politikoa bideratzeko sistema opari zerutiarra balitz bezala. Jainko demokrazia egon eta jainko hori demokraziaren sustatzaile nagusia balitz bezala. Jainkoa aita edo ama? babesle maitagarria izan daiteke, baina ez demokrata; ez dago demokrazian errotuta, eta ez da sistema demokratikoaren bermea. Bestela ez lukete ahotan munduko hainbat eta hainbat tirano, zaldun, errege eta demokratak, euren negozioak edo sarraskiak egiteko.

# berria

Inprimatzeko bertsioa



Leku-lekutan xJOSE MARI PASTOR

## Nostalgiaaren fiordoan itoa

Oslo, bakearen nostalgia. Ariel Sharon Oslo izan da aste honetan, baina ez du Osloz hitz egin nahi izan. Norvegiako hiriburua ez da existitzen Israelgo lehen ministroaren geografia politikoan. Haren begiak Judea eta Samarian daude, ez dute besterik ikusten. Oslo hiri izoztua da, israeldarren oroimen lainotsuaren fiordoan itoa. Osloko akordioak hilda baitaude eta bakerako esperantza sortu zuen itunaren arrastorik ez baitago Israelgo lehen ministroaren agendan.

Sharonek bere mezu nekagarria errepikatu du Europan barrena egin duen biran: Jasser Arafat da bakerako arrisku bakarra. Aftenposten egunkari norvegiarrari Oslora heldu aurretik eskainitako elkarrizketan argi utzi du bere xedea zein den: Arafat bakartzea. Sharonek adierazi duenez, Arafat da egun Errepide Mapa bake plana ez garatzeko oztopo nagusia; Arafat da bakearen arerioa, ez bera, edo ezker-eskuin dabiltzan sionismoaren uso-belatzak. «EBk ez luke estatubururik, ministroarik edo bitartekaririk bidali behar Ramalara Arafatekin hitzegiteko», esan du.

Bakearen Nobel saridunaren kontrako adierazpenak israeldarren eta palestinarren arteko bake ituna bultzatu zuen estatuko hiriburuan egiteak errealitate gordina islatzen du, sinbolismo eta itxura hutsetik haratago: Sharon Oslo edo Tel Aviven egon daiteke fisikoki, baina bere izpirituak Beiruten segitzen du, une zehatz batean gelditurik, heriotzaren erlojuari orratzak herdoildu eta Arafat hiltzeko aukera aprobetxatu ez zuenekoan. Bi hamarkada igarota lider palestinarra hil ez izanaz damu dela aitortu du Sharonek. Eta sinetsi egin behar zaio.

Bagdad, hilketa isilen oihua. Zenbat hanburgesa kontsumituko zuten garatu gabeko herrialde bateko mila lagunek bizi osoan? Zenbat Coca Cola? Zenbat dolar irabaz zitezkeen jan-edan horien ondorioz? Gerra bukatu denetik 1.000 ume baino gehiago hil dira okupatzaileen erasoek Irakeko bazterretan utzitako misilen eta armen leherketen ondorioz. Tony Blairrek AEBetan Iraken okupazioa «suntsipen handiko armarik egon ez balitz ere» defenditu duen egunean jakinarazi ditu datuak UNICEFek. 1.000 ume errugabe, baina hedabideetan soldadu estatubatuarren gorpuk baizik ez ditugu kontatzen, ttattanka: 146, 147, 148...

AEBetako Estatu idazkari Colin Powellek laguntza eskatu dio NBEko idazkari nagusi Kofi Annani okupazioaren zama humano eta ekonomikoa (estatubatuarra, noski) arintzeko. Eta Annan, egoera usteltzeko arriskuaz ohartuta, irakiarrei subiranotasuna bueltatzeaz mintzatu da, horrela nazioarteko tropen parte-hartzea errazago legezkatat jotzeko, eta Irakeko txostena berriro ere NBEren eremura itzularazteko. Okupazioa kolaborazio bihurtzeko, azken batean.

Mosku, poesiaren errebolta. Odol zipriztinak inoiz ez dira lehortzen Historiaren liburuetan: matxinoaren hitzek iraganaren orbain gorria urratzen dute orri hitsetan. Evgeni Evtutxenko poeta errusiarrak 70 urte bete zituen ostiralean, eta hedabideek «gizon gazte amorrus bete» omendu dute egunotan. Evtutxenkok nazien sarraskiak salatu ditu, eta estalinismoaren krimenak. Txetxeniako gerra zela-eta, muzin egin zion Boris Jeltsinen sari bati, eta egun Putinen kritiko kupidagabea da. Kremlinako buruak «terroristak hil egin behar dira» dioten honetan, Evtutxenkok «mina eta lotsa» azaltzen du Moskuren politika gaitzetsita. Eta gorrotoa, «haiek bezala pentsatzen ez dutenen kontra abertzaletasunaren monopolioa aldarrikatzen dutenenganako».

© Berria.info

MUNDUA ③

## Leku-lekutan

① JOSE MARI PASTOR



## 45 minutu

## WASHINGTON ● Frogarik gabeko

**armak.** 45 minutu nahikoa dira pentsa daitezkeen ekintza eta fenomeno ugari gertatzeko, baina ez irudika daitezkeen guztiak. Hiru ordu laudenean ezin da Lur-retik Ilargira joan, *Karamazov* anaiek irakurri edo Macchu Pichu eraiki —bai, ordea, suntsitu—. Bahimenduak pobretutako estatu batek ezin du munduko potentzia handienekin kontra egin ere. Batez ere erasotzeko asmorik ez duenean edo, asmoa izan arren, horietarako tresnarik ez duenean.

Hala ere, Tony Blairrentzat denbora hori nahikoa zen Saddam Husseinek arma izugarrien bidez Mendebaldea jotzeko. Erresuma Batuko lehen ministroak hain modu itsuan segitu nahi zion George Bushi, ezen AEBetako presidentea baino urrunago joan zen akusazioetan. «Blairrek getirara etaman gaitu, Bushi lagun handien eta fideleena dela frogatzeko», idatzi du haren Atzerri ministro ohi Robin Cookek *The Independent* egunkarian.

«Zerbizu sekretuak ez dira perfektuak», esan du George Tenet CIAko buruak Husseinek suntsipen handiko armak zituela frogatu ezina onartu eta gero. Tene-ten ustez, erakundeak ez zuen inoiz esan Irak «berehala erasotzeko gaia» zenik, Bushek eta Blairrek hedatu zuten bezala. Arma ikuskatzaileen buru David Kayk ere argi eta garbi utzi du Iraken ez zegoela «debekatutako armarik».

AEBetan eta Erresuma Batuan iskanbila handia sortu du ustetako armen aferak, azken batean aitxakia horrekin herri subiranoko baren kontrako eraso egin zutelako Washington eta Londresek.

Espainiako Gobernuak, aldiz, ez du autokritikarik egin. Areago, Ana Palacio Atzerri ministroak errugabetasun presuntzioa nola ulertzen duen argitzeko esaldia boia du: «Saddam Hussein dagokio arma horiek ez dituela frogatzea». Alegia, akusatzaileak ez du akusazioa frogatu behar, akusatuak akusazioa deusezatu baizik.

Logikoena alderantziz izango litzateke:

ezeren susmoak dituenak frogak bilatzea eta hirugarren batek printzipioz errugabea dena erruduna den edo ez erabakitzea. Baina prozesu hori aspaldi galdu zen eta pauso horiek txikikeriak dira egun.

## BRUSELA ● Popularraren amnesia.

Gerraren ostean *Entnazifizierung*-a—desnazifikazioa—hasi zen Alemanian, urte haietako izugarrikerien arduradunak erabakitze guneetatik kentzeko.

Ahaleginak ez zuten luze irauan AEBek errudunak jazaritzeko interesa galdu zutelako. AEBek hiltzaileen jakintza erabili nahi zuten Gerra Hotzean, eta krimen nazietan parte hartu zuen elitea erakundee-tan sartu zen. «Epaile beldurgarri haiek administrazio berrira itzuli ziren. Alemaniako Errepublikak Federalean epaile nazi bat bera ere ez zuten zigortu krimen nazientzatik», idatzi du Rainer Huhle politologo eta Nurenberg-eko Giza Eskubideen Zentroko zuzendaritzako kideak.

Munduak Mangelé doktorea non zego-

en galderzen zuten bitartean, Alemania berria Alemania zahararen zutabeekin sortzen ari zen. BND informazio Zerbizuz Federaletako unitate oso bat eta hasierako zenbait buru nazi ohiak ziren. Horietako asko alderdi demokratiko berrietan ere sartuko ziren. Amnesia kolektiboa—«silitasuna», Hermann Lübbe historialariaren hitzetan—beharrezkoa zen, antza, estatu demokratikoa eraikitzeko.

Estatu komunista ohietan ardurak izan zituzten politikaririk Europako Batasuneko erakundean egotea galaraztea onartu du astean Europako Alderdi Popularrak Bruselan eginitako bilera. Ebn kide berriak sartuko diren honetan sorgin ehiza bulitzatu nahi dute. Kadar, Gornulka edo Novotnyren itzalek geure markatu libere-ten paradisuia ihunduko ote duten beldur.

Ekialdeko Europatik beraien ere erretziklaritzeko eskubidea badutela esan diete kontsebadorei, eta haien arren ere antzeri gertatu zela gogorarazi. Alegia, EBko erakundean dauden guztiak ez dutela betidanik label demokratikoa izan; haietako batzuk iragan iluna dutela: nazismo, faxismo, frankismo; salazarismo edo kolaborazionismo kide ohiak izan direlako. Edo haien ondorengo ideologikoak direlako. 45 urtean. Edo 45 minutuan.

## ② BANAKETA HESIA


## Inoizko manifestaziorik jendetsuena

Israel Jerusalem ekialdean eraikitzen ari den banaketa hesiaren kontrako manifestazio jendetsuena egin zen atzo Abu Dis hirian. Orotara 2.000 pertsonak

baino gehiagok eman zioten sostengua hainbat gobernuz kanpoko erakundek deitutako protesta ekintzari. 'Herria hesia baino indartsuagoa da', 'Ez hesiari', 'Jerusalem gure lurraldea da, gure hiriburua da' leloak oihukatu zituzten manifestariek. Tartean Osasun eta Garapenerako Institutuko zuzendari Mustafa Barguti izan zen. Bere hitzetan, «hesi guztiak» eratsi behar dira eta hilaren 23an Hagako auzitegiak hesiaren inguruan hartzekoa den erabakia «erabakiorra eta oso garrantzitsua» izango dela zehaztu zuen.

EKIALDE HURBILA  
Israelgo Armadak Jihadeko kide bat eta ume bat hil ditu Gazan

Erasoa gaitzetsi eta mendekatuko duela iragarri du erakunde armatuak



ERASOA GAZAN. Jihad Islamikoa erakundeko buruzagi Aziz al-Shamiren autoa, atzo, Israelgo Armadak egindako erasoaren ondoren. MOHAMMED SABRI/ EFE

## ERREDAKZIOA

Jihad Islamikoa erakundeko buruzagi Aziz al-Shamiren heriotza eragin zuen erasoaren erantzulea dela jakinarazi zuen Israelgo Armadak atzo. Gaza Hiriko erdigunean izandako erasoan hamabi urteko Tarek Al-Suni

umea hil zen. Lekuakoen arabera, helikoptero batek gutxienez hiru misil bota zituen eta Jihadeko buruzagiaren autoaren kontroloa zuten. Aziz al-Shamik bi hankak galdu zituen erandaren eraginez eta ospitalean hil zen.

Umea eskolara bidean zegoen erasoan izan zen unean. Beste hamai

maika pertsona zauritu ziren erasoaren ondorioz. Hiru oso larri daude.

Israelgo Armadako iturriek bere gain hartu zuten erasoaren erantzukizuna. «Erasoaren xede izan den pertsona hainbat soldadu israeldarren heriotzaren erantzulea zen eta, memento

honetan, zenbait eraso suizida prestatzen ari zena» adierazi zuen bozeramaile batek.

Jihad Islamikoak eraso gaitzetsi eta mendekua hartuko duela iragarri zuen heriotzaren berri jakin eta berehala. «Gure erakundeak ziri egiten du erantzuna oso mingarria izango dela eta Israelen okupazioari luza-mendutan ibili gabe erantzun go diogula», zehaztu zuen argitaratua eman oharrean.

Erakunde armatuko bozera-maile Jaled al-Batshen hitzetan hilketa selektiboak «sionisten eragelkeriaren ondorio» dira eta erasoek ez diote erresistentziari amaiera jarriko. «Aurkariei ohararazten diegu erasoak, hilketak, deportazioak eta suntzitza-penek ez dutela erresistentziarekin jarraitzeko gure kementa hausturiko», zehaztu zuen. Bere usteran, Israelgo lehen ministro Ariel Sharon astre honetan Gazako kokaguneak bertan behera uzteko egindako iragarpena «palestinarren kontrako krimenak» ezkutatuzko asmoa baino ez da.

## Erreferenduma

Gazako hamazazpi kokagune kolonoak husteko plana «dena ongi joanez gero» datorren urrian abiatuko dela iragarri zuten atzo Israelgo Gobernuko iturriak. Ildo horretan, lehen ministroaren egitasmoa Israelgo Legebiltzarreko gehiengoaren babesa izango luke.

Bien bitartean, Ariel Sharonek prestatu duen banaketa

plan unilateralak «atzera bueltariki» ez duela adierazi zuen atzo Israelgo lehen ministroorde Ehud Olmertek.

Halaber, planaren inguruko erreferenduma prestatzen hasi dela helarazi zuen atzo Sharonen Bultgoko zuzendari Dov Weissglassek.

MUNDUA

Leku-lekutan

Ⓛ JOSE MARI PASTOR



Franklinen arranoa

**GONAIVES** • Mendebaldeko infernuko atea. 1750. urtean mundu osoko kolonia aberatsena zen Haiti, orduko kolonizatzaileen etekin ekonomikoaren arabera. *Antillako Harribixia* zenak Frantziako Barne Produktu Gordinariaren %50 ematen zuen, Bob Corbett historiagile eta People to People gobernuz kanpoko erakundearen builtzatzaileak azaldu duenez. Frantziarrek azukrea, kafea, tabakoa, koka, kotoia eta beste produktu exotiko asko inportatzen —lapurtzen— zituzten handik, metropoliari findu, prestatu eta gero Europa osoan saltzeko.

Gaur, 250 urte baino gehiago pasatu direnagu, Haiti munduko herrialde pobreenetakoa da, infernuko atea: herritarren %90 analfabetoak dira, unean %30 baino ez doaz eskolara eta haietako %2 baizik ez dira bosgarren mailara heltzen; zortzi milioi herritarretako askok dolar batekin egin behar diote aurre egunerero euren eguneroko miseriari...

Haiti Ameriketako bigarren estatua independentea izan zen, AEBen ondoren. Frantziako Iraultza gertatu eta gero izan zen burujabe, 1804. urtean Gonaivesen izaniko mugimenduari ondorioz. Munduko lehen errepublika-belza izan zen. Hala ere, arazoak segituan iritsi ziren. Esplotazioak beste era batera segitu zuen gizon eta emakume librearen kontra, eta elite beltz berriak frantziarren hutsumea bete zuen.

Zama horri, gainera, 1838ko zorrarena gehitu zitzaion. Errepublikak belza ez zen oso eredugarria mundu zuri zibilizatutarrerantz, antza, eta haren produktuei boikot egiten hasi ziren potentziak. Estatu be-

rria nazioarteko onarpena lortzeko irri-

kan zegoen, eta horretarako Frantziaren oniritzia behar zuen. Paris, baina, kontra zegoen, baldin eta lehenago kolono esplotatzaileei kendutako lurren truke Haitik kalte-ordainak ordaintzen ez bazituen. Azkenean, errepublika beltzak amore eman behar izan zuen. Boyer presidenteak Frantziari 150 milioi frankoko zorra ordaintzea onartu zuen 1838an. 1922a arte ez zuten amaitu zorra kitatzen. Horrek guztiak, beste hainbat faktoreekin batera noski, garrantzi izugarria izan zuen Haitiren lehen mende askéan, eta ondoko hamarkadetakoa garapena baldintzatu zuen.

Geroztik, kaosa, diktadurak, gerra, pobrezia eta AEBen itzala eta atzaparrak, zuzeneko okupazioen edo zeharkako sosten-gu zitaren bidez: 200 urtean 30 estatu kolpe baino gehiago. Orain Jean Bertrand Aristide presidentearen aurkakoa da botroka. Hauteskunde libreetan aukeraturako lehen presidentea izan zen Aristide, 1991n. Gizarte aldaketa agintzen zuenak ezkerrean esperantza sortu zuen, baina orain hura joatea nahi dute aurkariak. Haiteko asko Duvalier diktadorearen jarrizaitzaiek eta haren armada basatiko kide ohiak dira; beste asko, berriz, kexu diren herritarrak: Aristidek ez du ustelkeria bukatu; areago, haren eragilea da, haien ustez. Matxinada piztu da Gonaivesen, duela 200 urte independentzia prozesua abiarazi zuten lekuan.

**BAGDAD** • Ekialdeko infernuko atea. AEBak kontinente berrian indepententzia lortu zuen lehen estatua izan zi-



**HERRITAR BAT**, sulan dagoen barrikada baten ondoan, Gonaivesen. ORLANDO BARRIN/ EFE

ren, 1776. urtean, Haiti errepublika sortu baino 28 urte lehenago. Hala ere, herritar beltzek AEBetan ofizialki esklabo izaten segitu zuten denbora luzean, eta Haitin ez —teorian behintzat—.

Hamahiru kolonia haiek etengabe hedatzeari ekin zioten. Egun kolonia handi bihurtu dute mundua, haien arranoaren hegoen azpian. Benjamin Franklinek ez zuen nahi arranoa estatu berriaren ikurrean egotea, berez «lapurreten eta harrapakariaren animalia» delako. Franklinek ez zuen AEBentzat halako geroririk nahi, baina

haren hitzak ez zituzten kontuan hartu: egun arranoaren sinbologia imperial eta konkistatzailea nagusi da munduan, ez soilik AEBetan; independentzia nahi lukeen herri zapalduak ere maite dute harraparria.

Arranoaren hegoak Irakeraino iritsen dira egun, eta arpilatze horrek ondorio ezin txarragoak ekar ditzake: Iraken gerra zibila izango ore den beldur da Washington orain. Horixe adierazi du *Financial Times* egunkariak, Bushen gobernuaren agintzeran oinarrituta. Hala ere, Babilonia zaharra lehen baino hobeto dagoela esaten segitzen du Etxe Zuriak. Bushek mezu positiboak bidaltzen dizkio munduari, berak agian sinesten ez duena aurtekoari sinetsaraziz, noizbait sinetsiko duen esperantza: irakiarrek askatasuna dute. Askatasun hori zein eta zenbaterainokoa den eztabaidagarria da baina. Baita horren benetako balioa ere, herrialdea gerraz zibilean baldin badago.

Orain Iraken gertatzen ari dena zer da, bada? Hortxe daude okupazio indarren kontrako erasoak; hortxe daude okupazio indar horiek inposatutako botere egitura berrien kontrako atentatuak; hortxe kolaboratzaile izan nahi duten guztien aurkako kolpe latzak. Egoera gori-gori dago. Aste honetan ere odoletan agertu da, gori-gorri 24 orduko tartearia 100 hildako eta dozenaka zauritu eragin dituzte, bi atentatutan: lehena, Polizia berria sartzeko ilaran zuden irakiarren kontrakoak; bigarrena, beste ilara baten kontrakoak, okupatzaileek sustaturako Armadako kideak izan nahi zutenak txikitzeko. Beste eraso bat atzo, berri z Polizia helburu, eta beste 22 hildako.

Biktimak irakiarrek ziren gehien-gehienak. Irak, berriz, gerra zibilean dago. Gerra zibila askoz txarragoa izan daiteke, eta horren beldur dira AEBak. Bitartean, arranoa hegan dabili munduan, atzaparrak non sartuko zain: orain Iraken; bihar, agian, Haitin.

GUANTANAMO

Presoen egoera aldatuko duela agindu du Washingtonnek

«Nolabaiteko lege ordezkari» izango dutela dio Powellek, baina «AEBentzat arrisku» direnek gatibu jarraituko dutela

ERREDAKZIOA

Estatu Batuek Guantanamoko basean dituzten 650 presoen egoeran aldaketak egingo dituztela adierazi zuen atzo Colin Powell Defentsa idazkariak. Gatibu bakoitzaren egoera urtero aztertuko dutela iragarri zuen Powellek, eta batzorde batek presoa «Amerikarentzat mehatxu» ote den erabakiko duela. Halere, Guantanamoko presoak defentsari eta akusaziorik gabe atxiloturik jarraitzearen alde agertu zen Washingtongo agintaria, «se-

gurtasun beharra» argudiatuta.

Presoen etorkizunaren inguruan erabakia hartzeko, hiru kideko batzordea osatuko dute zerbitzu sektoretako kideek eta gatibuek galdetatu dituzten militarrek.

Duela ia hiru uretik hona, Afganistanen axiloiuriko ehunka lagun preso daude estatubatuarrek Kubako uhartean duten base militarrean. Gatibu horiei ez dizkiete eman nazioarteko lege-diak gerra presoentzat exijitzen dituen eskubideak. «Jendea abokaturik eta epailetarik gabe atxilotuta izatearen ideiak ez du ohi-

koa ematen», esan zuen Powellek; «gure herrialdearen aurka-ko gerra ekintzengatik axiloiuta daude, eta hori dela eta, besteak beste, arauak ezarri behar zaizkie».

Aurretirantzean gatibuei «nolabaiteko lege ordezkari» emango dietela gaineratu zuen Powellek.

Lehen «estradizioa»

Guantanamoko kontzentrazio eremuetik Espainiako espetxe batera eraman zuten atzo estatu horretako herritarasuna duen

preso bat. Halako «estradizio bat» egiten den lehenengo aldida, nahiz eta hainbat estatutako gobernuak beren herritarrek Guantanamotik ateratu ditzairela eskatu duten. Abderrahman Ahmad 29 urteko gizonari Al Qaeda erakundeak ustez Espainian

zuen talde bateko kide izatea leporatzen dio Baltasar Garzon epaileak. Al Qaeda 2002an Japonian eginitako munduko futbol kopan erasoak egiten saiatu zela zabaldu zuen atzo Washingtonek, preso batiurri gisa alpatuta.

Donostia Uda  
Ayuntamiento de San Sebastián

HAUTESKUNDE MAHAIAK ERATZEKO PARTAIDEN ZOKKETA PUBLIKOA

Indarrean dagoen Hauteskunde Lege Organikoan araututa dagoena belez, interesatuei jakitera ematen zale, hurrengo martxoaren 14ko Hauteskundetarako Mahai Lehendakari eta Mahalkideen zozketa publikoa, 2004 otsailaren 16ean, astelehena, eguingo dela Donostiako Udaletxeko Estadistika Bulegoan, goizeko 8.30etan.

Donostia, otsailaren 13a  
IDAZKARI NAAGUSIAK

ZESTOA (ASUNCION HOTELA)

32 etxebizitzaren promozioa, garajeak eta trasteroak  
Prezioa: 165.000 eurotik aurrera (27.000.000 pezeta)

URBITECNIA 943 424648

ataria.net  
Bereizlan Imobiliarra

1.180 erreferentzi zuré esku

## Leku-lekutan

① JOSE MARI PASTOR



## 1963-2003

**HAGA** ● **Legareen hesian.** «Ariel Sharonek ahateak eta ardiak gordezten ditu. Hesi bat jartzen du haien inguruan, eta ate batekin ixten ditu. Berak erabakitzen du aberak sartu edo iritena diren. Horixe ari da egiten gurekin». Sur Bahir aldeko nekazari palestinarren hitzak Israel Zisjordanian eraikitzen ari den banaketa hesiaren filosofia azaltzen dute. Nagusiak bere mende-ko animaliak kontrolatzeko erabil ditzakeen metodo berak erabiltzen ari da Israel bere mende-ko palestinarren kontra: «*Onak bazarete, larteta irten zaitzake; gaiztoak izanez gero, baina, kortan usteltzen utziko zaituztet, irten gabe*».

Banaketa hesia palestinarren aurka azken hamarkadetan izandako lapurretaren historiakoaren azken pausoa baino ez da. Seguratsunari buruz Tel Avivetik dituen kezak ulergarriak badira ere — arisku horiek urteen poderioz norik eta nola handitu dituen zehaztea beste kontu bat da —, arazoari ematen zaion konponbidea potentzia kolonialak herri zapalduari ematen diona bezalakoa da. arrazista. Palestinarrek azpikoak dira, piztiak, kortan gorde beharrekoak. Munduko beste potentzia askok ez dute aho batez onartu konponbidea, ezta aho batez gaitzetsi ere. Botere-tsun arteko betiko komplizitatea da, *laissez faire* diplomatikoa.

Banaketa hesiak gero eta ghetto handiagoetan sartuko ditu palestinarrok; haien ekonomia eta bizibaldintzak gehiago estutuko ditu. Kortan usteltzen utziko ditu. Banaketa hesia sionismoaren porrotaren adierazgarria da, eta ez du konponduko auzia; ez ditu hobetuko israeldarren eta arabiarren arteko harremanak.

Aste honetan israeldarrek Ramalan egindakoak are gehiago okertu du giroa. Hor ere nagusiatzen indarra erabili du Israelrek. Far Westeko film batean balitz bezala, ia 9 milioi euro lapurtu ditu Armadak hango banketxe-tatik, dirutza hori ekintzaille palestinarentzat zela argudiatuta. Soldaduek banketxeetan sartu dira, kamerak zakuakin estali, eta lanari ekin. Guztira lau lekutan izan dira lapurretak: Arab Bank-eko bi sukurtzaletan, Cairo Amman Bank-en eta International Palestine Bank-en. Palestina-ko lehen ministro Ahmed Kureiak mafiaren jarduerekin konparatu du israeldarren jokoa.

Dena *terrorismoari* aurre egiteko izan da, antza. Munduan inork ez du ezer esan; badirudi legezkoa dela. Manhattango



TONY BLAIR Erresuma Batuko lehen ministroa. ANDREW MILLS/VEE

bankuetan lapurtzen hasi behar dute orain Afrika, Hego Amerika edo Asiako herritar pobreak, beraien herrialdean ondareak lapurtu eta herritarrek esplotatu eta askotan izutzen dituzten multinazionalen *terrorismoaren* kontra egiteko? Zurich edo Bernako banketxeen egoitzak txikituko dituzte herritar horiek mundu osoko diktadore hiltzaileek edo demokratikoki aukeratutako agintari ustelek osurako diruzta berriro eskuratzeko?

**LONDRES** ● **Espioitzaren erreinuan.** Espioitzak, mundu zabalera jarduera arrunta den arren, berebiziko tradizioa edukitu du Erresuma Batuan. Graham Greenen eleberriek eta Gerra Hotzean gertatutako kasuek

handitu egin dute, agian, espioitzari britaniararen fama.

Baterik, *Cambridgeko laurak* ditugu: Burgess, Blunt, Maclean eta Philby —ezagunena; Moskura 1963an ihes egin zuen—. Cambridgeko espioiek gaztetan, 30eko hamarkadan izan zuten lehen kontakitua sobietarrek, eta haien aldeko lana egin zuten ondoko hamarkadetan. Erresuma Batuko zerbitzu sekretuetarako kideak ziren, eta Churchill, Roosevelt eta Trumanek erabakitzen zutenaren berri ematen zioten Moskuri.

*Profumo gerra* 1963an ere gertatu zen, eta hautsak harrotu zituen: Harold Macmillanen gobernu kontsebadorerako ministroak sexu harremanak zituen Christine Keeler *showgirl* gaztea

rekin. Keeler Sobiet Batasuneko enbaxadako funtzionario batekin ere bazebilen, Euvgeni Ivanov izenekoa. Ivanov espioi sobietarra zen: Profumo eta Keelertren arteko erlazioa erabili nahi zuen NATOk arma nuklearrak Alemaniara noiz eramango zirenen jakiteko, neska berak aitortu zuenez. John Profumok kargua utzi zuen eskandaluaren ondorioz.

Berrogei urte pasatu eta gero, espioitza berriaz azaleratu da Erresuma Batuan. Oraingo honetan, akusatua Tony Blairren administrazioa izan da. Espioitza Irakeko inbasioaren harira gertatu zen 2003an, baina lehenago ere. Londresek NBEko idazkari nagusi Kofi Annan espiatu zuen. Arma ikuskatzaileen buruak eta NBEko Segurtasun Kontseiluan krisiari buruz bozkatzeko dudan zeuden estatuen ordezkariak ere espiatu zituzten ia, haien elkarrizketak grabatuz.

Espioitza munduko gauzarik normalena da, baita *lagunen* artean ere. Kontua hain da arrunta, non espatzea bera ez den harriagarria, espatuen artean NBEko burua egon arren. Eskandalua entzungailuak edo grabagailuak deskubritzen direnean sortzen da soilik. Kontua ez da nor nor espatzen ari den, denek espatzen baitute. Kontua hauxe da: NBEko buruari, NBEko diplomatikoek, NBEko arma ikuskatzaileen buruei halakorik egiten bazaie, zere ez zaigu egingo besteoi?

Zertatarak espatzen den da gakoa. Jarduera bera ez da bekataria; jardueraren motiboa, ordea; bekataria izan daiteke. Lapurtzean bezala. Legea norberaren mesederako erabiltzen da soilik. Bestela, legea hautsi eta kito. Eta zenbaitetan, legerik eta errespeterik merezi ez duten piztiek, begirunerik ez. Ateak txikitu, kamerak estali, eta dirua lapurtu. Nora joan dira Ramalako bederatzi milioi euroak?

## PAKISTAN

### Islamabadek eta Washingtonek Bin Ladenen atxiloteta gezurtatu dute

AGENTZIAK-ISLAMABAD

Al Qaeda islamista sarearen sortzaile eta buruzagi Osama Bin Laden Pakistanen atxilotu dutela adierazi zuten arzo Irango irrati publikoan, paturazko albistegian, baina Washington eta Islamabadeko agintari politiko eta militarrek berria gezurtatu zuten. Haatik, Pakistango Armadak areagotu ditu egunotan Bin Laden eta Al Kadako kideak blatzeko lanak, eta 11 lagun hil zituen arzo operazio batean.

Afganistango eta Pakistango paktuera hiztunei zuzendutako albistegian zuten Bin Ladenen atxilotzearen berria zabaldu, baina ez zuten horrelakorik aipatu ordea, Irango herritar gehienentzako berri saioretan, farsi hizkuntzazkoetan. Ashk Hossain paktuerako erredakzioaren arduradunak ziurtatu zuten Bin Laden orain dela zenbat denbora atxilotu zutela baina George Bush Ameriketako Estatu Batuetako presidententzako albiste geroago jakinarazteko asmoa duela, azaroan AEBetako presidentetzarako hauteskundeetan onuragarrienk izateko gisan.

Alabaina, Afganistanen zabaldutako AEBetako Armadako indarren eldun Bryan Hilferry koronelak eta Pakistango Armadaren bozeramaie Shaukat Sultan jenerala gezurtatu zuten albistea. Gainerat, Hosseinek albiste iturri gisa izendaturako Shamin Shahed kazetari pakistandarrak ukatu zuten horrelakorik esan zuela, eta honela zehatu: «Esan dudana da Bin Laden non dagoen badakirela estatubatuarrek eta edonoz atxilotu dezaketela».



## EIBARKO UDALA

IRAGARKIA

Akabetzaren 2003ko urtarriaren 31ko ebatzaren bitartez, lehengoaz onetsi da Bakiko arau subsideleko urri lurzoruko P-11 lurraldearen xehetasun azterlana; izan ba azterlan hori Jose Angel Zabala Suarez artekoak aurkeztu dau. Horrela bada, iragarri nau hogei asteguneko epean barrera ezarriko da jandaurrean, beti be EGIJNERO egunkean argitaratzen dan bharanurek zehazzen hasia. Beraz, prozedura zain juridik azertu eta, egokitzat joen bada, beharrezko alegazioak

Akabetzaren 2003ko urtarriaren 31ko ebatzaren bitartez, lehengoaz onetsi da Bakiko arau subsideleko urri lurzoruko P-11 lurraldearen xehetasun azterlana; izan ba azterlan hori Jose Angel Zabala Suarez artekoak aurkeztu dau. Horrela bada, iragarri nau hogei asteguneko epean barrera ezarriko da jandaurrean, beti be EGIJNERO egunkean argitaratzen dan bharanurek zehazzen hasia. Beraz, prozedura kuzgai egongo da udai idazkartzan, edozein pertsona fisiko zain juridik azertu eta, egokitzat joen bada, beharrezko alegazioak

Andoain, 2003ko martxoaren 13a

Alkatea

Jose Domingo Penabazka Ferrandiz

## 'BERRIA' K KOMERTZIAL BAT BEHAR DU CARSOALDEKO ESKUALDEAN (Erréf.: Oarso)

- Eskaizten da:**
- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
  - Lan kontratua, Gizarte Segurantzarekin.
  - Soldada finkoa eta komisioak.

**Eskaizten da:**

- Euskaraz jakitua ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Aitua izatea.

**Kontuan hartuko da:**

- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Eskualdekoa izatea.
- Eskualdea ondo ezagutzea.

Curriculum Vitae

zehatza bidali

markoaren Sertako

gb@berria.info

helbide elektronikora

edo beste helbide

honetara:

**BERRIA**

Giza Baitaldeak

Martin Ugaldé Kultur

Parkea 20140 Andoain.

Ez ahaztu erreferentzia

zehatza.

## MUNDUA

## Leku-lekutan

① JOSE MARI PASTOR



## Dien Bien Phuko prostitutak

**BAGDAD** ● Irainaren garrasia. Nor-tzuk dira Abu Ghraibeko proxenetak? Norik erabaki du gaitu irakiarrak euren joko sadiakoetan erabiltzea? Noren aginduz, noren baimenez?

Ameriketako Estatu Batuetaiko soldadu okupatzaileek irakiarrei egindako torturak —edo *tratu txurak* esan beharoko da, gurean hain barretaturik dagoen terminoa erabiltza?— iritzi publikoa asintzen segitu dute. Donald Rumsfeld AEBetako Defentsa idazkariak horren guztiaren erantzukizuna hartu du, baina ez du dimensio aurkeztu. Bush presidenteak karguan mantendu du Rumsfeld. Ez da ezer harritik gertatu, antza; ez, behintzat, Defentsa arduradunak postua uzteko modukorik; ezta herri irakiarrari zuzentasunez barkatzeko eskarzekorik ere.

Iraken askatasun haizeak hedatu behar zituztenek presoak torturatu dituzte, izotzezko polsetan sartu, hilt. Iraken askatasun haizeak hedatu behar zituztenek presoak arrastaka ibilgarazi dituzte biluzik, ixkurazko sodomia ekintzetan parte harritarazi, ahozko sexua eta masturbazioak egitera behartu dituzte —hain sortzerriko zenbat estatu ultrakristautan debekaturita dauden jarduerak, hain zuzen—. Abu Ghraibeko kartzela Saddam Husseinen erregimenen oposizioa umiliatzeko erabilzen zen; orain, leku hori xede berekin erabili dute AEBetako askatzaileek.

Min psikikoa edo morala min fisikoa baino askoz handiagoa izan da irakiarrentzat. «Gu ez gara senideen aurrean biluzten, eta haiek emakumeen aurrean biluztu gaituzte», esan du irakiar batek AEBen jarrera gaitzesteko. Biliutasun publikoa tabua baita musulmanentzat, haien erlijioaren kode moralaren oinarri nagusia da. «Esan gizon fededunei haien begiradak zaintzeko eta haien lotsatzenak gordetzeko (...) Esan emakume fededunei haien begiradak zaintzeko eta haien lotsatzenak gordetzeko», dio Koranak. Baina horrek ez die ardura Mendebaldeko askatzaileei, George Bush-ek zuzentzen dituen kristau integristei.



VU QUY HOANH 80 urteko gerra betetako, Dien Bien Phuko hilerrian, ostiralean. RICHARD VOÛLE/AF

Torturaren irudiek beste edozerk baino kalte handiagoa egin diete AEBei. Bizia galdu duten soldaduen hilkurtzak erakustek baino gehiago, banderarekin estailiak, hegazkin militar erraldoiaren baturuan jarraldi «triziaren gerra galdu dute AEBek», azaldu du tortura kasuen ondorioei buruz Mohammed El Oifi Zientzia Politikoko irakasle eta hedabideetako aditua. Hori herri arabiarren gertatu da batez ere. Kuwait eta Saudi Arabiako hedabide ofizialak lagun amerikarren gehiegikeriak estralzen saiatu dira, baina ezin izan dute errealtatea ezkartatu.

Soldadu estatubatuarren jokkerak Bushen gurtzadaren moralgabetasuna agertu du. Izua eta, batez ere, nazka eragin du. Nazka, irainaren ispluan degradazio humanoa irudiatu azaldu direlako. Degradazio moral hori Lynnie England soldadaren irribarreak gorpuztu du, harro harro, preso irakiar biluzien aurrean, edo leporari lotutako sokarik tiraka, arrabiak jotako piztia bat hillegia eramango balu

bezala. «Okerreko lekuan nengoen, okerreko unean», esan omen dio Lynnie Englandek bere amari. Besterik ez.

**DIEN BIEN PHU** ● Isiltasunaren zigorra. Non daude Dien Bien Phuko prostitutak? Norik gogoratzen ditu egun? Jacques Dalozek, *La guerre d'Indochine* liburuen egileak egin ditu galderak, Frantziako okupazio tropen eta Vietnamgo gerrilla askatzailearen arteko bataileren 50. urteurrenean.

Borroka odoltsu hart Parisen kolonialismoaren gainbehera areagotu zuen, garai baten amaiera. Ostiralean Vietnamek eta Frantziak egun hura ekarri zuten gogora, norik bere erara: askapen nazionalaren hasieraz mintzatu zen Hanoi, mugarri bat independentziarako bideaz; «hondamendia epopeia bihurtu zuten soldadurak» omen du zituen Parisiek, Jacques Chirac presidentearen hitzetan.

1954ko martxoaren 13an hasi eta maiatzaren 7an bukatu ziren borroketan ia

13.000 lagun hiltako desagertu ziren bi aldeetan. Che Lan Vien poeta vietnamdarrek gauero soldaduen odola eta haragia sakrifkatu zirela idatzi zuen *Palen Zarata Dien Bien Phun* poeman. Bizirik segitzen zutenek borrokalariak lurperatzen zituzten gauetz, biharanunean palen soinu makbroa haien hezurretan finduko ote zen jakin barik.

Dien Bien Phun bi BMC zeuden (Kampainako Burdel Militarrek). Batean emakume asiarrak pliatzen zituen; bestean, magrebtarrak. Soldadu frantsesek behar sexualak asetzeko erabiltzen zituzten kolonietako andre haiek.

Historialari frantziarren esanetan, prostitutak erizain jardun zuten Dien Bien Phu borroka azkenaldian, soldadu frantsesen plazeraren zertua oinazearen infernua amildu zenean. Prostituten patua erabakia zegoen; emakume esplotatu haiek gerrako diktima izan ziren, beste asko bezala: zapaltzaileen gozamen hila piztu eta min bizia itzali zutenak sarraskitatu zituzten askatzaileek, Dien Bien Phun nagusitu zirenean. Gerra legea, nonbait.

50 urte geroago inork ez du ezer esan emakume haiei buruz. Ohorezko omenaldien garaian Frantziak ez du onartu nahi izan bere heroi erotik haragiaren grinari emanak zirela, eta prostituta asiar eta arabiar haiek erabili zituztela. Nola onartu emakume haiek azken unean soldaduek zaindu zituztela, *urdanga* haiek sentimenduk zituztelak Ez. Maria Magdalena kristautasunaren monopolioa da.

Nork lurperatu zituen Dien Bien Phuko prostitutak? Andre haiek Abu Ghraibeko proxenetek baino erruki handiagoa izan zuten, baina zorte txikiagoa. Haiek ere okupatzaileen alde egin zuten, baina okupatzaile gaitzaileen alde. Horrexegatik hilt ziren. Haiek ere okerreko lekuan zeuden, okerreko unean, Lynnie England bezala. Baina, hura ez bezala, hilt egin ziren. Lynnie, bertiz, exzera bueltatu da bizirik, bizizaren hazia barruan daramala. Haren mutil-laguna Iraken gertatu da soldadu. Haudun dago.

**Kukubixko.com**  
94 459 83 86  
kukubixko@kukubixko.com

**ekidazi**  
lehenek ez dakite bilobitza jotsen



Universidad Euskal Herriko Umebisteria

ERREKTOREGOIA  
REKTORADO

**UPVEHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIA ESKURATZEKO PROBEN DEIALDIA**

Euskal Herriko Unibertsitatean euskaraz irakasteko behar den hizkuntza maila eta gaitasuna frogatzeko probak egingo dira.

Proba hauen arautegia eta azterteko ereduak eskuratzeko moduak, eta behar diren beste xehetasun guztiak, Interneteko lehibide honetan argitaratu den deialdian zehazten dira: <http://www.ehu.es/euskera-ortia> (*Euskara Probak*). Detaldi hau Euskara Errektoredezaan, Gipuzkoako Campusean eta Arabako Campusean argitarkatutak diren ere ikus daiteke.

Maiatzaren 10etik 14ra (biak barne) zabalik egongo da eskariak aurkezteko epea. Probak eskainaren 1etik 4ra artean egingo dira.

Juan José Larrea Conde  
Euskara Errektoreordea, jardunen  
Leioa, 2004ko maiatzaren 9an

**WAP**  
HIRI ARABARRIARTZAN  
ERIKAL ERAMUNDEAN

**LURRALDE ETA HIRI IKASKETARAKO EUSKAL ESKOLA (LHIEE) IKASTAROEN DEIALDIA**

- 1) "HIRI-PLANGINTZA ETA -KUDEAKETA KO OINARRIZKO IKASTAROA" -1.600etarik 20.15etara  
Itzupena: 24 ordu, ikaste-kopurua 25, motikula: 204 €  
Irakasleak: Jon BERECIARUA, Angel PÉREZ INIESTA (leioako Udaltzeak),  
- BILBAO: Mutilazaren 17, 18, 24, 25, 31n eta ekainaren 1ean (Cod: 2004-CU-02)  
- DONOSTIA-SAN SEBASTIAN: ekainaren 3, 7, 8, 10, 14 eta 15ean (Cod: 2004-CU-03)  
- VITORIA-GASTEIZ: Itzupena 20, 21, 23, 27, 28 eta 30ean (Cod: 2004-CU-04)
- 2) "JARDUERA, LAN- ETA REKITEZ-BAIMENI BURUZKO IKASTAROA" - 1.600 etatik 21:00 etara  
Itzupena: 24 ordu, ikaste-kopurua 25, motikula: 204 €  
Irakasleak: Enrique RINCON eta Mar ALAIZ (Bilboko Udaltzeak) eta Juan Ramon Cendrero (Donostiko Udaltzeak),  
- DONOSTIA-SAN SEBASTIAN: mutilazaren 31n, ekainaren 1, 2, 7, 8 eta 9an (Cod: 2004-cu-05)  
- BILBAO: Itzupena 14, 15, 20, 21, 22 eta 23an (Cod: 2004-cu-06)  
- VITORIA-GASTEIZ: Azaroaren 15, 16, 17, 22, 23 eta 24an (Cod: 2004-cu-07)
- 3) "INGURUMENA LANPOSTUAN" - 9etatik 14:00etara  
Itzupena: 5 ordu, ikaste-kopurua: 20, Motikula: 32€  
Irakasleak: MIRANDAOLA Servicios Ambientales S.L.  
- BILBAO: Ekainaren 15ean (Cod: B1A1C)  
- DONOSTIA-SAN SEBASTIAN: Ekainaren 22an (Cod: B1ADIC)

Eskubideak eta informazioa:  
**LURRALDE ETA HIRI IKASKETARAKO EUSKAL ESKOLA (LHIEE)**

Erteakide Zumarkalea, 18-1º 48009 Bilbo  
Tel: 944031604 Fax: 944031601  
www.lvap.org e-mail: event@lvap.es



Euskararen Autonomatzailea  
EUSKARAREN ERREKTOREGOIA  
ERIKAL ERAMUNDEAN